



2016

Txostena
Memoria

FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK / ENTIDADES PUBLICAS EMPRESARIALES FORALES

E.L.A.
L.A.E.

Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Sailari atxikitako Foru Enpresa Erakunde Publikoa den Estatuko Loterien eta Apustuen Bizkaiko Merkataritzako Ordezkaritza (ELA), izaera publikoa duen erakundea da, eta Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietateak (ELAES, SA) Foru Aldundiari agindutako funtzio eta ekintza guztiak gauzatzeko ardura du, bera baita haren ordezkaria gure Lurralde Historikoan.

ELAren Ordezkaritzak ELAESen menpe dagoen Estatu Jokoa kudeatzeko ardura du Bizkaian. Eginkizun horren bidez, Bizkaian izaten diren salmenten araberako komisioa jasotzen du. Komisio hori ustiapeneko diru-sarrera nagusia da aipatu erakundearen Galdu Irabazien kontuan.

ELAren Ordezkaritzaren eginkizun nagusiak honako hauek dira: Bizkaiko Lurralde Historikoan Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietatearen menpe dauden Joko mota desberdinetako loteriak, jokoak eta apustuak (gaur egunekoak edota etorkizunekoak) kudeatzea, ustiatzea eta komertzializatzea.

Eta, oro har, ELAESen eta Bizkaiko Salmenta Puntu Integralen eta Mistoen (gaur egun 275) Sare Komertzial osoaren arteko bitartekotza egitea, ELAren produktuak modu egokian kudeatzeko eta komertzializatzeko.

Aurtengo helburu zehatzei dagokienez, arlo honetan aurreikuspenak egitea zaila bada ere, gure negozioan goranzko joera nabaritu izan dugu, 2013. eta 2014. urteetan salmentek izan zituzten beherakaden ostean. 2015. urteko datuen arabera, 2016. urteari begira baikorrak izan gaitezke.

La Entidad Pública Empresarial Foral "Delegación en Bizkaia de Loterías y Apuestas del Estado", (LAE), adscrita al Departamento Foral de Hacienda y Finanzas, está configurada como una entidad de naturaleza pública, cuya gestión consiste en la realización de todas las funciones y actividades encomendadas por la Sociedad Estatal Loterías y Apuestas del Estado, S.A. (SELAE) a la Diputación, en su calidad de Delegada en nuestro Territorio Histórico.

La Delegación de LAE constituye un ente gestor del Juego estatal en Bizkaia, cuya competencia tenga atribuida SELAE, y por cuya tarea en función de las ventas que se generan en Bizkaia, percibe una comisión que supone el principal ingreso de explotación, en la cuenta de Pérdidas y Ganancias de la mencionada Entidad.

Con carácter genérico se podrían señalar que las funciones de la Delegación de LAE son la gestión, explotación y comercialización de la actividad del juego en sus distintas modalidades de loterías, juegos, apuestas, presentes y/o futuros, sobre las que tenga atribuida la competencia la Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado, S.A., en el territorio Histórico de Bizkaia.

Y, en general, la intermediación entre SELAE y toda la Red Comercial de Puntos de Venta, tanto Integrales como Mixtos –actualmente 275-, existente en Bizkaia para el adecuado y buen funcionamiento de la gestión y comercialización de los productos de LAE.

En cuanto a los objetivos concretos para este año y partiendo del hecho de que en el mundo en el que nos movemos es difícil de hacer predicciones, sí observamos una tendencia al alza en nuestro negocio tras las bajadas de ventas de los años 2013 y 2014. Los datos que nos aporta este 2015, nos hace ser optimistas de cara al año 2016.

FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK / ENTIDADES PUBLICAS EMPRESARIALES FORALES

E.L.A.
L.A.E.

Datu horiek aztertuta, badirudi aurtengo lehen hilabeteetan hondoa jo dugula eta ekonomiaren hoheranzko joerak eragina izan dela jokoaren industrian, eta, ondorioz, gure interesetan ere bai, nahiz eta Gobernuak 6/2016 Legearen arabera 2.500 €-tik gorako sariei ezarritako zerga indarrean egon. Nabarmentzekoa da zerga hori oso kaltegarria izan dela gure jokoentzat.

Aurreikuspen horiek egiteko esan behar dugu uda garaian ez dugula beheranzko joera handirik izan, nahiz eta garai hori, historikoki, ona ez izan gure Ordezkaritzarentzat, Bizkaia ez baita bisitariak hartzeko tokia izan, alderantzizkoa baizik.

Era berean, oso interesgarria iruditu zaigu ELAESek kinielako apustuan sustatu duen gehikuntza, 0,50 €-tik 0,75 €-ra hain zuzen. Portzentajezko gehikuntza hori oso garrantzitsua izan da sariak handiagoak izateko, eta, bide batez, apustulari berriak erakarri ahal izateko.

Halaber, nabarmentzekoa da Loteria Nazionalako salmentek izan duten gorakada. Loteria Nazionalak bezeroak gure Salmenta Puntuetara erakartzen ditu; horrela, aukera izaten dute gure komisioa lortzeko ditugun jokoetara hurbiltzeko. Ildo beretik, begi onez ikusten ditugu ELAESek egin nahi dituen berritasunak loteria terminal bidez saltzeko. Etorkezinean, ordezkartzentzako komisioa sortzen duten produktuen artean jasota egon beharko litzatekeela uste dugu.

Hartzaile kopuruari dagokionez, 2016. urtean kopurua handitzea espero dugu aurtengo otsaileko Mistoen Lehiaketa Irekiaren bidez sartu diren Salmenta Puntuekin. Beste puntuaren bat edo beste ere izango dugu ELAESek Salmenta Puntu Singularreri buruzko izapidea desblokeatu ondoren. (Salmenta Puntu Singularrak aparteko merkataritza-interesa duten tokietan egoten dira).

Analizando estos datos, parece que hemos tocado fondo en los primeros meses de este año y que la generalizada mejoría de la economía, tiene su repercusión también en la industria del juego y por lo tanto en nuestros intereses y todo ello a pesar que el Gobierno mantiene en vigor el gravamen a los premios superiores a 2.500 € que establece la Ley 6/2016, y que tan nociva ha resultado para nuestros juegos.

Para justificarnos en estas previsiones podemos decir que también hemos observado esta tendencia en el periodo estival, donde las ventas no se han reducido en exceso, a pesar de que estas fechas, históricamente, no suelen ser buenas para nuestra Delegación, pues Bizkaia no era precisamente un destino natural de visita en época veraniega, sino más bien de aportar visitantes a otras lugares.

También nos ha resultado muy interesante el aumento de la apuesta de la quiniela que ha promovido SELAE, pasándolo de 0,50 € a 0,75 €, incremento porcentual importante y que busca que el incremento de los premios, pueda atraer a nuevos jugadores.

Es importante también observar el incremento de las ventas de la Lotería Nacional, que atrae a los clientes a nuestros Puntos de Venta y permiten a los jugadores acercarse a los juegos por los que ingresamos nuestra comisión. En este sentido, vemos con agrado las novedades que SELAE pretende introducir para la venta de lotería por terminal, pues entendemos que en el futuro también deberá de recogerse entre los productos que generen comisión para la delegaciones.

En cuanto al número de receptores, esperamos incrementarlo en 2016, con la incorporación de los Puntos de Venta procedentes del Concurso de Mixtos abierto en febrero de este año y con algún punto más, al desbloquear SELAE, el trámite sobre los Puntos de Venta Singulares, que son aquellos que se dan en lugares de especial interés comercial.



2016

BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN AURREKONTU OROKORRAK
PRESUPUESTOS GENERALES DEL TERRITORIO HISTORICO DE BIZKAIA

Txostena
Memoria

FORU ENPRESA-ERAKUNDE PUBLIKOAK / ENTIDADES PUBLICAS EMPRESARIALES FORALES

E.L.A.
L.A.E.

2016. urtea garrantzi handiko urtea izango da Ordezkaritza honentzat, urte horretako abenduaren 31n bukatzen baitira ELAESein indarrean dugun Aldi Baterako Merkataritza Kontratuaren balizko luzapenak. Hori dela eta, ezinbestean negoziatu beharko dira Estatuko Loterien eta Apustuen Estatu Sozietatearekin aurrerantzean izango diren ekonomia- eta zerbitzu-baldintzak. Horren harira, esan behar dugu Ordezkaritzen Elkarteko partaide garela eta lan-talde bat osatu dela. Lan-talde hori ELAEseko langileekin biltzen da hitzarmen bat lortzeko asmoz, azken luzapen horren epea bukatu baino lehen.

Espero dugu gaur espektatibak baino ez direnak, bihar etzi egia bihurtzea. Horregatik, aurkezten dugu Aurrekontu hau, etekin aldetik emaitza zuhurrak proposatuta, baina, aldi berean, itxaropentsu gaude ekonomiaren hoberanzko joerak izango duen eraginagatik oro har, eta bereziki gure merkatuan.

Gauzak horrela, gure Ustiapen-kontua aldaketa handirik gabe dago. Aurrerantzean, kontratu-baldintza berriak aintzat hartuta, asmo handiagoak izatea espero dugu.

El año 2016 va resultar muy importante para esta Delegación, pues el 31 de diciembre de ese año, finalizan las posibles prorrogas del Contrato Mercantil Transitorio que tenemos vigente con SELAE, por lo que necesariamente se deben de negociar las condiciones económicas y de servicio que a futuro se mantendrán con la Sociedad Estatal de Loterías y Apuestas del Estado. Decir que desde la Asociación de Delegados a la que pertenecemos, ya se ha creado un grupo de trabajo, que se está reuniendo con personal de SELAE, de cara a ir profundizando en un acuerdo que pueda cerrarse antes de la fecha de finalización de esta última prórroga.

Esperamos que lo que hoy son meras expectativas se vayan consolidando, por lo que presentamos este Presupuesto que propone un resultado cauteloso en beneficios, esperanzados en la mejoría de la economía en general y de nuestro mercado en particular.

De esta forma, nuestra Cuenta de Explotación, se mantiene sin grandes cambios, esperando que podamos ser más ambiciosos en el futuro, con las nuevas condiciones contractuales.